

Udal talde politikoaren iritzia



URTE BARRI ON, GETXO!

2022. urtea pozik amaituko dugu, duela lau urte getxoztarrekin hartu genituen konpromiso gehienak bete baititugu. Ez dugu gure konpromisoa kenduko, berretsi eta azpimarratu baizik, EAJ-PNVk gure herria den Getxorekin duen konpromisoa baita, Getxo zoragarria eta ilusio handien sorlekua delako. Hazteko, bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko udalerrietako bat dugu. Getxon, jarraitzen dugu bizi-kalitatearen erreferentzia izaten, eta gure konpromiso publikoak hauxe nabarmentzen du: "aurrera egiten du ekipamenduak, zerbitzuak, irisgarritasuna, parkeak, plazak, pasealekuak, hondartzak, kirol-espazioak eta bidegorriak etengabe hobetzeko proiektuen bidez. Hori guztia, parte-hartzea zein jasagarritasuna bultzatuz".

Ilusioz betetzen gaituzten konpromisoak betetzen goaz sendotasunez: HAPO berriaren bidez, berritzailea eta jasagarria den Getxo diseinatzea, Getxoko hurrengo belaunaldientzat giza eskalan egina.

Elkarte-sarearekin lan egiten jarraitzen dugu, Fadura eraldatzeko eta herritarrentzat irekita dagoen espazio



ireki berria izan dadin, eta herritarrek beren bizitzan zehar bizi-baldintzarik onenak izan ditzaten: adinekoentzako egoitza eta gazteentzako zuzkidura-

bizitokiak uztartuko dituen belaunaldiarteko zentro berritzailea Romon.

Euskadiren kulturaren abangoardian

kokatzen ari gara Getxo berriz, eta kulturaren nortasun-ikur bihurtu dugu, besteak beste Muxikebarriren bidez, RKEren bidez eta Urgulleko Sormen HUBaren bidez. Halaber, gure herria irisgarritasunaren eta mugikortasunaren erreferente bilakatzen gabiltza, eta horren erakusgarri dira Zugatzarte nahiz Makaletaren eraldaketa, Manuel Gainza aparkalekua eta Areta-Romoko plaza berria nahiz berria eta askoz lagunkoiagoa izango den Kale Nagusian laster erabili ahalko dugun proiektua.

Getxon dagoen talentua bultzatzen dugu, ikasteko eta sortzeko espazioak eratuz, ekintzaileei laguntzeko helburuarekin, bai eta saltokia, ostalaritza eta zerbitzuak sustatzeko laguntzak eta programak sustatu ere. Hori horrela, erabateko konpromisoa dugu hurbilagoa, dinamikoagoa eta eraginkorra den administrazioa lortzeko.

Hortaz, gure konpromiso ia guztiak beteta amaituko dugu 2022. urtea, eta ilusio handia dugu urte berriak dakarrena ikusteko. ZORIONAK ETA URTE BARRI ON!!!!



KAOSA AREETAKO OBRENGATIK



Obren kaosak bere horretan jarraitzen du Areetan, eta PPko kideok badakigu gauzak beste era batera egin daitezkeela, adibidez ukitutako herritar eta saltokiei entzunez, informazio etengabea eta xehatua eskainiz, obren egikaritzapena tarteka planifikatuz, ukitutako saltokiei salbuespenak aplikatuz, hitzartutako epeak betez eta, azkenik, garrantzitsuena: arazoak konponduz eta

ez gehituz; izan ere, Areetako erdigunean berrehun aparkaleku-plaza kenduko dituzte, Kale Nagusia zati batean oinezkoentzat egiteko obren eta Geltoki plaza eraberritzearen ondorio. Kaosak eragina izan du ere Umeen Gabonetako Parkean, zeina kosta ahala kosta jarri baita, bate-re segurua ez izan arren, eta hori ere aipatutako obren ondorioa da. #EsnatuGetxo

ehbildu 2022. URTEARI BEGIRADA KRITIKOA

Gabon hauetan berriro kaleak betetzeko eta elkarren irribarreak ikusteko aukera izan dugu. Hala ere, baditugu hainbat arrazoi gure irribarreei lortzen uzten ez dietenak.

Aurten, Udal Gobernuak espekulazioan eta eraikuntza masiboan oinarritutako HAPO aurkeztu du, horrek eragingo duen suntsipenari eta herriaren beharrei entzungor eginez. Romoko Lope de Vega 12-ko eraikinetik Ibar Nagusien Etxeko kideak kanporatu ditu eta espazioa hesitu zuen, epaileak eraisketa gelditu zuen arren. Algortako Mugimendu Feminista epaitua izaten ari da, Portu Zaharreko jaietan eraso kimikoa salatu zuen emakume bat artatu eta protokoloa jarraitzeagatik eta oraindik ez dute gure herriko Udal Gobernuaren babesik jaso.

Horretaz gain, 2023ko udal aurrekon-

tuek erakusten duten bezala, EAJ-PSE taldeek ez dute interes handirik gure herriak duen etxebizitza arazoaren aurrean politika zehatzak proposatzeko, mugikortasun plan eraginkorrek gauzatzeko, ondarea eta ingurugiroa babesteko, herri eragileen lanari oztopoak arintzeko, besteak beste.


Ezin ahaztu, halaber, familia askotan aulki batzuk hutsik jarraituko dutela gabon hauetan ere, oraindik ere hainbat preso politiko asko etxetik urrun jarraitzen dutelako.

Eman ditzagun pausu sendoak gure amorrua askatu, antolatu eta irribarreei ernaltzeko bideak zabaltzeko, gure ingurura begiratu eta ondo sentiarazten gaituen Getxo elkarrekin sortzeko, aniztasuna oinarri gorputz mota desberdinak sartuko diren herria sortzen jarraituko dugu.

PSE-EE
PSOE

2023AN, AURRERA EGITEN JARRAI DEZAGUN. GABON ZORIONTSUAK!

Gabon hauetan, Udal Talde Sozialistako kideok gure desiorik onenak helarazi nahi dizkiegu eta ilusioz betetako mezua bidali nahi diegu gure herrikideei 2023. urterako. PSE-EEen, lanean jarraituko dugu Getxo hobea, berdinzalegoa eta sozialki bidezkoagoa izan dadin. Gobernutaldean dugun eginkizuna oinarri hartuta, Getxoren alde lan egiten jarraituko dugu, pertsonak erdigunean jartzen dituzten politikak izan ditzan, adinekoak zaindu ditzan eta gazteak ere aintzat hartu ditzan. Halaber, ekonomian ere jarriko dugu fokua, tokiko merkataritza sustatuz. Funtsean, erakargarria den eta



2023ak ekarriko dizkigun eskakizunei erantzuteko gai den Getxo erakitzen jarraituko dugu.



HUTSALAK, GORRAK ETA PASIBOAK DIREN AURREKONTUEI EZ

Aurreko ostiralean, EZEZKO botoa eman genien 2023ko aurrekontuei, kontinuitate eta anbizio gabe koak direlako; gobernu-taldeak inposatutako kudeaketarekiko kritika nagusi izan zen osoko bilkuran egin zen bozketan. Oposizio guztia bat etorri da diagnostiko horretan: 2023a garrantzi handiko inbertsioak eta aldaketa nabarmenak egiteko urtea izan behar du, hainbat urtetatik Ge-

txok dauzkan arazoei irmoki erantzuteko. Alabaina, EAJk eta PSEk ez dute elkarrizketarako borondate zintzorik erakutsi, ezta aurrekontu hobeak izateko asmo erreala ere; hori guztia, Getxoko herritarrek ordezkari hauteskundeak izatearren gogoan. HAPOren hasierako onspen polemikoan ere agerian geratu zen kudeaketaren erakusgarri dugu hori. elkarrekinpodemos@getxo.eus